

## IRAGARKIAK

### Beste iragarki ofizial batzuk

#### EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

## 1095

*IRAGARKIA, 2023ko otsailaren 14koa, Industria Administrazioaren Gipuzkoako lurralde-ordezkariera, zeinaren bidez aurretiazko administrazio-baimena eta eraikitze baimena eskatzen baitira Adunako udal-mugaratean dagoen Aduna TA 132/30/13,8 kV-ko azpiestazio transformazionala berritzeko.*

Martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuaren 10. artikuluan (2020-04-24ko EHAA), abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuaren 144. artikuluan (2000-12-27ko BOE) eta Sektore Elektriokoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 53tik eta 56ra bitarteko artikuluetan (2013-12-27ko BOE) ezarritakoaren ondorioetarako, aurretiazko administrazio-baimena eta eraikitze baimena eskatu dira instalazio honetarako:

Esp.: 20-AT-Y-2022-00156.

– Eskatzailea: I-DE Redes Eléctricas Inteligentes, S.A.U.

– Kokalekua: Adunako udalerria.

– Aurrekontu osoa: 1.104.752,22 euro.

– Xedea: T-2 izeneko potentzia-transformadorea berritu behar da (132/30 kV eta 45 mva-ko potentziako transformazio-erlaziokoa), duen egoera eta antzinatasuna kontuan hartuta. Horren ordez, antzeko transformazio-erlazioa duen (132/30 kV eta 60 MVA-ko potentzia) transformadore berria jarri behar da, zerbitzuaren kalitatea hobetzeko eta eragin-eremuko hornidura bermatzeko. Jarduketa honek, gainera, inguruko azpiestazioen eta, beraz, inguruko herrien zerbitzu-kalitatea hobetuko du.

– Jarduketaren funtsezko ezaugarriak: T-2 izeneko potentzia-transformadorea (132/30 kV eta 45 mva-ko potentzia nominaleko transformazio-erlaziokoa) kentzea, eta horren ordez 60 MVA-ko ONAF potentzia eta aurrekoaren transformazio-erlazio bera dituen jartzea.

Hiru (3) tximistorratz berri jarriko dira T-2 potentzia-transformadorearen upelean.

Halaber, T-2-aren goiko biribilkiaren neutroaren irteerako tentsio kapazitiboko transformadorea ordezkatuko da.

Aurretiazko administrazio-baimena eta eraikitzeko administrazio-baimena eskatzen dira.

Horren berri ematen da guztiek jakin dezaten, eta dokumentazioa aztertzei aukera izan dezaten Industria Administrazioaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzan (Easo 10, 1. solairua, Donostia / San Sebastian) edo webgune honetan: <https://www.euskadi.eus/energia-eta-meategi-inguruko-proiektuei-buruzko-informazioa/web01-a2energi/eu>. Egoki irizitako alegazioak bi aletan aurkeztu beharko dira Industria Administrazioaren Lurralde Ordezkaritzan honetan, gehienez ere 20 eguneko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Donostia / San Sebastián, 2023ko otsailaren 14a.

Industria Administrazioaren Gipuzkoako lurralde-ordezkaria,  
AGUSTIN AROSTEGI ARTETXE.